

ZUMAIAKO UDALA

Gaia: 2010. urtean Presoen Familiei eman beharreko dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzari behin betiko onespina ematea.

Udalaren 2010eko ekainaren 8ko ezohiko osoko bilkuran 2010. urtean Presoen Familiei eman beharreko dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren aldaketari hasierako onespina ematea erabaki zuen.

Ordenantza hori 30 eguneko apean jendaurrean jarri zen, 2010eko ekainaren 24ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako iragarkiaren bidez, eta ez zenez aurkeztu interesdun aldetik inolako erreklamaziorik zein iradokizunik, aipatu ordenantza behin betiko onartutzat ematen da.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, iragarki honetan eranskin gisa argitaratzen da ordenantzaren testu osoa.

Administrazio bidean behin betikoa den akordio honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salaren aurrean, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

Hala ere, alde zuzeneko izaeraz, Udal honen Osoko Bilkuraren aurrean aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hilabeteko apean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Kasu honetan ezingo da administrazioarekiko auzietako helegiterik aurkeztu berraztertze errekurtsoa erabaki arte.

Zumaia, 2010eko uztailaren 30a.—Iñaki Agirrezabalaga Alkorta, Alkatea.

(1341)

(9432)

ERANSKINA

Garraiorako banakako diru-laguntzak, familiako kideren bat euskal autonomia erkidegotik kanpoko espetxeren batean duten pertsonentzat, edo EAE-tik kanpoko Epaitegietara auzipetu gisa joan beharra duten Zumaia-errentzat.

1. Xedea.

Zumaiako Udalak diruz lagunduko ditu, familiako kideren bat –zigortuta edo espetxeratze prebentiboan– Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko espetxeren batean dutenek, horiek ikustera joandakoan, izango dituzten gastuak. Araudi honen xedea da diru-laguntza horiek erregulatzea.

Diruz lagunduko dira, halaber, EAetik kanpoko epaitegietara auzipetu gisa joan beharra dutenen garraio-gastuak.

Diru-laguntzak gastu hauetarako soilik izango dira:

— Preso dauden familiako kideei egindako bidaietako gastuak.

— EAetik kanpoko epaitegietara auzipetu gisa joan behar dutenen gastuak.

AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

Asunto: Aprobación definitiva de la Ordenanza reguladora de las ayudas económicas a familiares de presos para el año 2010.

El Pleno municipal en sesión extraordinaria de fecha 8 de junio de 2010, aprobó inicialmente la modificación de la Ordenanza reguladora de las ayudas económicas a familiares de presos para el año 2010.

Dicha Ordenanza quedó sometida a información pública durante 30 días mediante anuncio publicado en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa de 24 de junio de 2010, y al no haber sido presentada alegación o reclamación alguna, la citada Ordenanza queda definitivamente aprobada.

En consecuencia, de acuerdo con lo dispuesto en el art. 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica como anexo al presente anuncio el texto completo de la Ordenanza.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo en vía administrativa, podrá interponerse en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la publicación, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

No obstante, con carácter previo, podrá interponerse recurso de reposición en el plazo de un mes, contado desde el día siguiente al de publicación del presente anuncio. En ese caso, no podrá presentarse recurso contencioso-administrativo hasta la resolución del recurso de reposición o hasta su desestimación presunta.

Zumaia, a 30 de julio de 2010.—El Alcalde, Iñaki Agirrezabalaga Alkorta.

(1341)

(9432)

ANEXO

Ayudas económicas individuales de transporte para familiares de personas internas en Centros Penitenciarios fuera de la comunidad autónoma, o para aquellas personas zumaianas que deban acudir en calidad de encausados a juzgados sitos fuera de la C.A.V.

1. Objeto.

Es objeto de la presente normativa la regulación de la concesión de ayudas económicas que el Ayuntamiento de Zumaia podrá otorgar para subvencionar los gastos de desplazamientos originados a los familiares de personas penadas o en prisión preventiva internas en centros penitenciarios fuera de la Comunidad Autónoma Vasca con motivo de las visitas que puedan realizar a las mismas.

También se subvencionaran los gastos de viajes realizados por encausados que deban acudir a juzgados que se hallan sitos fuera de la C.A.V.

Las ayudas serán exclusivamente para los gastos siguientes:

— Gastos de transporte para visitas de familiares de presos.

— Gastos de viajes de quienes deban acudir en calidad de encausados a juzgados sitos fuera de la C.A.V.

2. *Hartzaileak edo onuradunak.*

Laguntza horien onuradunak izango dira EAETik kanpoko espetxeetan zigortuta edo espetxeratze prebentiboan daudenen senide diren Zumaiaiko herritarrak. Lehenetsun-ordena honako hau izango da:

- Ezkontidea edo izatezko bikotea.
- Seme-alabak.
- Gurasoak.
- Anai-arrebak.

Ordena honetan gorago daudenek lehenetsuna izango dute, eta laguntzak jasotzen badituzte, beherago daudenek ez dute horretarako eskubiderik izango.

Onuradun bakarra izango da preso edo espetxeratze prebentiboan dagoen pertsona bakoitzeko. Lehenetsun-ordena horretako maila berean dauden bi pertsona edo gehiago badaude, zaharrenak soilik jasoko du diru-laguntza.

Bai eskatzaileak bai presoak edo espetxeratze prebentiboan dagoenak, biek, Zumaian erroldatuta egon beharko dute diru-laguntzaren eskaera egiten denean.

3. *Eskaerak aurkezteko modua, epea eta jendearen aurrean jartzea.*

Araudi honek erregulatutako diru-laguntza jasotzeko asmoa dutenek inprimaki bat bete beharko dute. Inprimaki hori Udaltxean eskuratu ahal izango dute, eta bertan aurkeztu agiri hauekin batera:

- a) Eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia bat.
- b) Bizikidetzta-unitateko kide guztien urteko diru-sarrerak egiaztatzen dituzten agiriak. Araudi honi dagokionez, bizikidetzta-unitatea osatzen dute eskatzailearen bizilekuan bizi direnek: Gurasoak, ezkontidea eta seme-alabak.
- c) Bizikidetzta-unitateko kide bakoitzaren azken soldatarria edo pentsio-agiria.
- d) Beste erakunde batzuetako diru-laguntzarik jasoko balu, edo horietan eskaerarik egin izango balitz, horien berri emango lukeen zinpeko-aitorpena.
- e) Preso edo deportatuta dagoen pertsonarekiko senidetatsuna edo harremana erakusten duen ziurtagiria (familia-liburua, izatezko bikote ziurtagiria).
- f) Eskatzaileak EAETik kanpoko epaitegi batera auzipetu gisa joan beharra duela erakusten duen ziurtagiria.

4. *Aurkezteko epea.*

Eskaerak urte guztian zehar egin daitezke.

5. *Prozedura.*

Izapideak Gizarte Zerbitzuen Departamentuan egin behar dira, horretarako beharrezko diren agiriak aurkeztuta. Laguntzak Alkatearen berariazko ebazpen bidez emango dira, organo instrukzio-egileak –Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak– proposatuta. Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzailearen txostena eta espedientea aztertuta egingo du proposamena zinegotziak.

6. *Balorazio-irizpideak.*

Baremo hau zehaztu da, diru-sarrera garbiak kontutan hartuta laguntzaren zer ehuneko aplikatuko den erabakitzeko:

2. *Destinatarios o personas beneficiarias.*

Podrán ser beneficiarios de estas ayudas los familiares de personas vecinas de Zumaia que se encuentren penadas o en prisión preventiva en centros penitenciarios, con el siguiente orden de preferencia:

- El cónyuge o pareja de hecho.
- Hijos e hijas.
- Progenitores.
- Hermanos y hermanas.

Las personas integradas en un orden preferente excluyen, de cara a la percepción de la ayuda, a las que forman parte de otro menos preferente.

Solo podrá haber un beneficiario por cada persona penada o en prisión preventiva interna. En el caso de que concurren dos o mas personas integradas en el mismo orden preferente, se considerara únicamente a la persona de mas edad.

Tanto los familiares solicitantes como las personas penadas o en prisión preventiva deberán estar empadronadas en Zumaia en el momento de presentar la solicitud de ayuda económica.

3. *Presentación de las solicitudes, forma, plazo y publicidad.*

Las personas que estén interesadas en percibir las ayudas económicas reguladas en la presente normativa, deberán cumplimentar y presentar en el Ayuntamiento una solicitud en el impreso que se les facilitara a tal efecto, adjuntando a la misma la siguiente documentación:

- a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad de la persona solicitante.
- b) Documentación en la que se haga constar los ingresos económicos anuales de todos los miembros de la unidad convivencial, entendiéndose por unidad convivencial a efectos de la presente normativa, el grupo de personas que convivan en el mismo domicilio del solicitante: Padres, cónyuge e hijos.
- c) Ultima nomina o documento sobre pensión de todos los miembros de la unidad convivencial.
- d) Declaración jurada en la que se haga constar, en su caso, la existencia de otras subvenciones (o solicitudes de subvención) concedidas (o formuladas) por (o ante) otras instituciones.
- e) Documento acreditativo del parentesco o relación con la persona presa o deportada (libro de familia, certificado de pareja de hecho)
- f) Documento acreditativo de hallarse encausado e indicación del juzgado al que debe acudir.

4. *Plazo de presentación.*

Las solicitudes se podrán presentar durante todo el año.

5. *Procedimiento.*

Las solicitudes serán tramitadas por el Departamento de Servicios Sociales Municipal, adjuntando toda la documentación precisa. La concesión, y en su caso, la denegación de las ayudas previstas en estas bases se realizaran mediante resolución expresa del Sr. Alcalde a propuesta del órgano instructor que será el concejal responsable del área de Servicios Sociales. El órgano instructor formulara la propuesta a la vista del expediente y del informe de la Comisión Informativa de Servicios Sociales.

6. *Criterios de valoración.*

Teniendo en cuenta los ingresos económicos netos, se determina este baremo con el fin de determinar si le corresponde el 100%, el 75%, el 50%, el 25% o el 0% de ayuda:

<i>Bizikidetzeta-umitateko kide kop. / Nº miembros U.C</i>	<i>%0</i>	<i>%25</i>	<i>%50</i>	<i>%75</i>	<i>%100</i>
1	31.209,12	27.307,98	23.406,84	19.505,70	15.604,56
2	40.075,20	35.064,75	30.056,40	25.047,00	20.037,60
3	44.330,00	38.789,52	33.248,16	27.706,80	22.165,44

a) Presoen senideentzat: Zumaiatik kasuan kasuko espetxerako kilometro-kopurua (joan-etorria) Zumaiako Udalak emandako diru-kantitateaz biderkatuta (0,26 €/km), eta horri autopistako gastuak gehituta. Urtean bi bidaia lagunduko dira diruz.

b) Auzipetuentzat: Epaketak irauten duen bitartean, Zumaiatik kasuan kasuko epaitegirako kilometro-kopurua (joan-etorri) Zumaiako Udalak emandako diru-kantitateaz biderkatuta (0,26 €/km), eta horri autopistako gastuak gehituta.

7. *Ordainketa eta hura egiteko modua eta epea.*

Diru-laguntza hauek ordainketa bakar batean emango dira, onartu eta gero.

Urtea bukatu aurretik, egindako bidaia-kopurua ziurtatuko duten agiriak aurkeztu beharko dira.

8. *Laguntzen aldebekotasuna.*

Araudi honetan erregulatutako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu berarekin beste administrazio publiko batzuek emandakoekin. Hala ere, ezin izango da gainditu bidaien kostu osoa.

Diru-laguntzek bidaien kostu osoa gaindituko balute, soberran emandakoa itzuli beharko zaio udalari.

Azken xedapenak:

Bakarra. Indarrean sartzea eta iraunaldia.

Araudi hau indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean.

a) El numero de kilómetros (ida y vuelta) desde Zumaia hasta la prisión donde el familiar esté recluido, multiplicado por lo que en el Ayuntamiento de Zumaia se abona por kilometraje (0,26 euros/km) + gastos de autopista. Dicha subvención será por dos viajes al mes (ida y vuelta)

b) Para los que deban acudir en calidad de encausados, mientras dure el juicio, los kilómetros (ida y vuelta) que haya hasta el lugar donde se celebra el juicio multiplicado por la cantidad que se abona por kilometraje en el Ayuntamiento de Zumaia (0,26 €/km) mas gastos de autopista.

7. *Abono o forma y plazos de pago.*

Las ayudas concedidas se harán efectivas en un pago único, tras la aceptación de la ayuda.

Antes de finalizar el año se deberá presentar la documentación justificativa de los viajes realizados.

8. *Concurrencia de ayudas.*

Las ayudas previstas en la presente normativa serán compatibles con la obtención de cualquier tipo de subvención o ayuda que para el mismo fin puedan obtenerse de cualquier otra Administración Pública, sin que en ningún caso se pueda superar el coste total de los gastos de desplazamiento.

En el caso de que las subvenciones otorgadas superen el coste total, el exceso de la ayuda deberá ser reintegrado al Ayuntamiento.

Disposiciones finales:

Única. Entrada en vigor y vigencia.

La presente Normativa entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.